

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko apirilaren 24tik apirilaren 28rako astea

➤ **INGURU MAKROA:**


ASTEKO DATUEN PODIUMA

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: KPI



Datuaren analisia

Eurogunean, apirileko inflazioaren atariko datua % 1,5etik % 1,9raino igo zen, aurreikusitako % 1,8a baino hamarren bat gorago. Azpiko inflazioa ere % 0,7 hazi zen, % 1,2raino, aurreikusitakoaren gainera (% 1). Inflazio horren handitzea zerbitzuen sektorearen gorakadak eragin zuen, % 1etik % 1,8ra igo baitzen. Herrialdeei begira, datuak positiboak izan ziren Alemanian, urte arteko tasa % 2ra igo baitzen, aurreko asteko % 1,5aren eta aurreikusitako % 1,9aren aldean. Espainian, aldiz, % 2,6ra iritsi zen urte arteko inflazio-tasa. Italian, halaber, % 2raino igo zen, aurreikusitako % 1,6aren eta aurreko asteko % 1,4aren ondoan. Frantzian, datua % 1,4koa izan zen, aurreko asteko eta aurreikusitako datu bera.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Eurostat/Europako Banku Zentralak. Europako etxeek kontsumitzen dituzten oinarriko zerbitzu eta ondasunen multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: IFO ALEMANA



Datuaren analisia


Alemaniarako IFO indizea aurreko asteko 112,3tik 112,9ra igo zen, espero ziren 112,4 puntuen gainetik, 2011ko uztailetik izan duen markarik onena. Gaur egungo egoera neurtzen duen osagaia ere 119,3tik 121,1era igo zen (espero zen datua: 119,2). Aurreikuspenen osagaia, bestalde, 105,2ra jaitsi zen, aurreko 105,7tik, eta aurreikusitako 105,9 puntuen azpitik. Sektoreei dagokienez, xehekako eta handizkako merkataritzak hobera egin zuten, baita eraikuntzaren balioztapenak ere. Manufakturen industriak, berriz, okerrera egin zuten arinki.

Adierazlearen azalpena

Enpresa-giroaren Indize alemaniarra (IFO) adierazle garrantzitsua da, inbertitzaileek Alemaniako jardura ekonomikoan duten konfiantza-maila neurtzen baitu. IFO Institutuak argitaratzen du hilero. 7.000 exekutibori baino gehiagori egindako inkesta batean bildutako datuetan oinarritzen da, gaur egungo eta etorkizuneko ekonomiaren egoerari buruzko galderekin. IFO indizeak lotura oso estua dauka Industria Ekoizpenarekin, eta, horrenbestez, BPGd-aren bilakaerarekin (lehenago argitaratzen denez, aurreikus daiteke).

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA



Datuaren analisia

Conference Board-ek neurtzen duen kontsumitzailearen konfiantza 120,3ra jaitsi zen apirilean, espero ziren 122,5 puntuen azpitik. Aurreko datua ere beherantz berrikusi zen, 125,6tik 124,9ra. Nolanahi ere, 2000tik lortzen ez zituen maximoetan jarraitzen du. Zuzenketa horren arrazoia aurreikuspenen eta gaur egungo egoeraren osagaien atzeraldia izan da, 112,3tik 106,7ra eta 143,9tik 140,6ra jaitsi baitira, hurrenez hurren. Michiganeko Unibertsitateak neurtzen duen Kontsumitzailearen Konfiantzak beherantz egin zuen arinki, atariko datuarekin alderatuta, eta 97 puntutan kokatu zen. Nolanahi ere, oraindik maila altuan jarraitzen du.


Adierazlearen azalpena

Kontsumitzailearen konfiantzaren indizea (ICC) kontsumitzailearen konfiantza neurtzen duen adierazle ekonomikoa da, eta, beraz, kontsumitzaileen gastua aurreratzen duen adierazlea da. Ekonomiaren egoera orokorraren eta gaur egungo zein etorkizuneko finantza-egoera pertsonalaren inguruan kontsumitzaileei egindako inkesta batean jasotako datuak ditu oinarri. Kontsumitzailearen konfiantza altuak hedapen ekonomikoa sustatuko du, baina baxua bada, hazkunde ekonomikoaren uzkurdura eragingo du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: BPGd

PIB USA (Contribuciones)



Datuaren analisia

2017ko lehen hiruhilekoko BPGd-aren hazkunde urtekotua % 0,7koa izan zen. Datua espero zena baino kaskarragoa izan da, % 1 besterik ez baita igo. Funtsean, kontsumitzaileen gastuaren beherakadak eragin du lehen hiruhilekoko BPGd-aren ahultasuna, urteko % 0,3eko erritmo eskasean egin baitu gora, aurreko epealdiko % 3,5aren aldean. Inbentarioak eta gastu publikoak ere hazkundera nabarmen geldotu zuten, nahiz eta inbertsio finakoaren portaera ona izan.

Adierazlearen azalpena

Barne produktu gordina (BPGd) Analisi Ekonomikoen Bulegoak kaleratzen duen datua da. Herralde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Estatu Batuek ekoizten dituzten azken zerbitzu edo ondasunen batuketara eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Erem	Adierazle	Aurreikus
05/01	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
05/01	Estatu Batuak	Markit AEB fabrikazioa PMI	52.8
05/01	Estatu Batuak	ISM manufaktura-indizea	56.5
05/02	Japonia	PMI Nikkey composite Japonia	--
05/02	Txina	Txinako Caixin fabrikazioaren PMIa	51.3
05/02	Espainia	Espainiako Markit fabrikazioaren PMIa	54.4
05/02	Frantzia	Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa	55.1
05/02	Alemania	Alemaniko Markit/BME fabrikazioaren PMIa	58.2
05/02	Eurogunea	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa	56.8
05/02	Eurogunea	Langabezia-tasa	% 9.4
05/03	Espainia	Hileko langabezia-tasa	-78.8
05/03	Alemania	Langabezia-tasa	% 5.8
05/03	Eurogunea	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	% 4.2
05/03	Eurogunea	Urte arteko BPGd SA	% 1.7
05/03	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
05/03	Estatu Batuak	ADP Enplegu aldaketa	175k
05/03	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
05/03	Estatu Batuak	Composite ISM ez manufaktura-sektorea	55.8
05/04	Txina	Txinako Composite PMI Caixin	--
05/04	Espainia	Markit PMI Composite Espainia	57.0
05/04	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	57.4
05/04	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	56.3
05/04	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	56.7
05/04	Eurogunea	Urte arteko xehakako salmentak	% 2.1
05/04	Estatu Batuak	Balantza komertziala	-\$44.5b
05/04	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	248k
05/04	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	% 0.7
05/05	Espainia	Urte arteko SA industria-ekoizpena	% 2.0
05/05	Alemania	Markit PMI Alemaniako xehakako merkataritza	--
05/05	Eurogunea	Markit Eurogunea xehakako merkataritza PMI	--
05/05	Frantzia	Markit PMI Frantziako xehakako merkataritza	--
05/05	Estatu Batuak	Langabezia-tasa	% 4.6

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK:

Oro har aste positiboa izan zen merkatuentzat. Frantziako hauteskundearen lehen itzulian Macron nagusitu zen, eta, datorren maiatzaren 7an, Marine Le Pen izango du aurkari Frantziako presidentetza lortzeko. Horrek eragin positiboa izan zuen merkatuetan, eta Europako ziurgabetasun politikoaren gutxitzearekin, astea igoera handiekin hasi genuen. Astearen erdian, AEBak izan ziren arreta-gunea, Trumpen zerga-planaren ildo nagusien iragarpenagatik. Baina ildoon xehetasun faltak eta gauzatuko ote direnari buruzko zalantzak harrera hotza izan zuten merkatuetan, eta atzera egin zuten arinki. Nolanahi ere, indizeek gora egin zuten, Europan batez ere; Ibex eta Eurostoxx indizeek % 3tik gorako igoera izan zuten. Igoera horiek txikiagoak izan ziren AEBetan. Nasdaq indizearen igoera izan zen nabarmengarriena; teknologia enpresen portaera onak bultzatuta, % 2,32ko datua lortu baitzuen, baita maximo historiko berriak eskuratu ere. Japonian ere astea positiboa izan zen, % 3ko igoerarekin, eta merkatu gorakorretan oro har.

ERRENTA FINKOIA:

Zor-merkatuetan ere oihartzuna izan zuten Frantziako hauteskundeek, arriskuarekiko beldur txikiagoa erakutsi baitzuten. Horiek horrela, hamar urterako errentagarritasun subiranoek behera egin zuten periferiako herrialdeetan, non erosketak izan ziren nagusi (-5 op 10 urterako zor espainiarrean, % 1,65era jaitsi zen). Aitzitik, epe berdinerako errentagarritasunak gora egin zuten Alemanian (+6 op, % 0,33ra). AEBetan, bestalde, 10 urterako bonuen errentagarritasuna igo egin zen (+3 op, % 2,28raino). Kredituak, bestalde, bere diferentzialak estutu zituen.

DIBISAK/LEHENGAIK:

Dibisen merkatuari begira, asteko nobedaderik aipagarriena euroaren indartzea izan zen, gurutzaketa nagusietan hauteman zitekeena. Astearen amaieran balioa irabaztea lortu zuen, eta % 1,95ean zegoen dolarrarekiko (1,0901 \$/€). Liberaren aurrean ere balioa irabazi zuen euroak, 0,8418 £/€-ra iristeraino. Lehengaien kasuan, AEBetako inbentarioen datua aurreikusitakoa baino gehiago jaitsi zen, eta horrek petrolio gordinaren prezioaren igoera eragin zuen. Hala ere, astea ez zuen positiboan ixtea lortu, eta -% 0,53 jaitsi zen. Urreak, babes aktiboa den aldetik, balioa galdu zuen, eta 1.268 \$/ontza mailaraino jaitsi zen.

INDICES	PRECIO	%Variación Semanal	% Var 2017
MSCI WORLD (Local)	1.445,54	1,86	5,96
IBEX 35	10.715,80	3,26	14,58
DJ EURO STOXX 50	3.559,59	3,47	8,18
DJ STOXX 50	3.182,80	2,16	5,72
FTSE	7.203,94	1,26	0,86
S&P 500	2.384,20	1,51	6,49
Dow Jones	20.940,51	1,91	5,96
NASDAQ	6.047,61	2,32	12,34
NIKKEI 225	19.196,74	3,09	0,43
MSCI EMERGENTES (Lo	52.328,37	1,87	9,82
MEXBOL	49.261,33	0,60	7,93
BOVESPA	65.403,25	2,58	8,59
SHANGHAI	3.303,44	-0,58	1,66
Rusia Rts Moscú	1.114,43	2,79	-3,29

Tipos Gobiernos	Nivel	Variación Semanal	Var 2017
ALEMANIA 2 AÑOS	-0,73	0,06	0,03
ESPAÑA 2 AÑOS	-0,26	-0,08	0,02
EE.UU 2 AÑOS	1,26	0,08	0,07
ALEMANIA 10 AÑOS	0,32	0,06	0,11
ESPAÑA 10 AÑOS	1,65	-0,05	0,26
EE.UU. 10 AÑOS	2,28	0,03	-0,16
ALEMANIA 30 AÑOS	1,10	0,13	0,16
ESPAÑA 30 AÑOS	2,96	0,04	0,34
EE.UU. 30 AÑOS	2,95	0,05	-0,11

Spread de crédito (pb)

MARKIT ITRX EUROPE 06/22	66,54	-7,85	-5,50
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/22	266,01	-24,67	-22,69

Divisas	Nivel	%Variación Semanal	% Var 2017
Dólar / Euro	1,09	1,95	3,36
Yen / Euro	121,46	4,23	-1,28
Libra/ Euro	0,84	0,74	-1,49

Materia Primas	Nivel	%Variación Semanal	% Var 2017
Petroleo (Brendt)	50,88	-0,53	-8,18
Oro	1.268,29	-1,23	10,07

Kutxabank Gestión SGIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.